



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

**Prensa oharra**

**Batzar Nagusiek onartu egin dabez Hiri-lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zergaren eta Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren aldaketak Osoko Batzarraren irudia**

**Gernikan, 2012ko maiatzaren 23a.** Bizkaiko Batzar Nagusiek aurtengo bosgarren Osoko Batzarra egin eben atzo Gernikan, eta bertan onartu egin ziran Hiri-lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zergaren eta Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren aldaketak. Batzar berean argi geratu zan Batzar Nagusiek aldeztu egiten dabela Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoagazko hitzarmena ez luzatzeko Foru Aldundiak hartutako erabagia, onartu egin ziran-eta horren inguruko hiru Arauz Besteko Proposamen, Euzko Abertzaleak, Socialistas Vasco eta Bizkaiko Talde Popularrak aurkeztutakoak.

Dana dala, Batzar Nagusian egin zan lehenengo bozketan atzera bota zan Bizkaiko Talde Popularrak aurkeztutako Mozino bat, Bizkaiko Sare Hidrometeorologikoa amaitzeari eta Getxoko Gobelas, Fadura eta Bolue ibaien arroetan sareak dauen egoerari buruzkoa. Bozketan 31 boto izan ziran aurka (Euzko Abertzaleak eta Socialistas Vasco Taldeenak) eta 19 alde (Bildu Taldearenak eta Bizkaiko Talde Popularrarenak).

Ondoren, Hiri-lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zergaren eta Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren aldaketak onartzeko behar zan azken tramitea egiteari ekin jakon, joandako maiatzaren 10ean izandako Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeak egindako Erizpenak onartzeari hain zuzen. Lehenengoa ahobatez onartu zan, eta bigarrenak Euzko Abertzaleak eta Socialistas Vasco Taldeetako Batzarkideen aldeko botoa jaso eban; Bildu Taldekoak eta Bizkaiko Talde Popularrekoak abstenitu egin ziran. Osoko Batzarrean eztabaidatzeko gordetako zuzenketa-eske guztiak atzera bota ziran.

Uriko hondakinen kudeaketea eta Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoagaz eukan hitzarmena ez luzatzeko Foru Aldundiak hartutako erabagia izan ziran hizpide batzarraren azkenean. Horren inguruan hiru Arauz Besteko Proposamen eztabaidatu ziran, Euzko Abertzaleak, Socialistas Vasco eta Bizkaiko Talde Popularrak bakotxak bere aldetik aurkeztutakoak. Hirurak onartu ziran hiru Taldeok alde bozkatu ebezalako, eta horregaz aldeztu egin eben Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoagaz eukan hitzarmena ez luzatzeko Foru Aldundiak hartutako erabagia. Bildu izan zan aurka bozkatu eban Talde bakarra, Aldundiaren erabagia gaitzetsiz.

Amaitzeko, Bizkaiko Talde Popularrak aurkeztutako Arauz Besteko Proposamen bat onartu zan; horren arabera, inguruko lurraldeakaz etorkizunean egin daitezkan



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAI A**

hitzarmenetan askatasun osoa izan behar dau Bizkaiak bere interesen onerako ondoen deritxan tratamentua eta balorazinoa egiteko eta horrek holan izan behar dau hizpaketa murriztailerik jarri barik tratamentuari eta balorazinori jagokenean . Proposamena onartu egin zan Euzko Abertzaleak Taldearen eta Bizkaiko Talde Popularraren botoakaz eta Socialistas Vascos Taldearen eta Bildu Taldearen abstentzinoagaz.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

**Nota de prensa**

## **Las Juntas Generales aprueban las modificaciones del Impuesto del Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana y el Impuesto de Bienes Inmuebles (IBI)**

**Gernika, a 23 de mayo de 2012.** El quinto pleno de las Juntas Generales de Bizkaia en lo que llevamos de año, ha aprobado, en una sesión celebrada esta mañana en Gernika y que ha concluido a las 14.10 horas, la modificación de dos normas forales: el Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana y el Impuesto sobre Bienes Inmuebles (conocido como IBI). En la misma sesión, se ha visualizado el apoyo de la Cámara vizcaína a la decisión de la Diputación Foral de no prorrogar el convenio con el Consorcio de Residuos de Gipuzkoa, al aprobarse tres proposiciones no de norma presentadas por los grupos Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos y Popular Vizcaíno.

La primera votación del pleno ha servido para rechazar una **moción** del Grupo Popular Vizcaíno, que pretendía instar a la Diputación a “*terminar la Red Hidrometeorológica de Bizkaia y la situación de la misma en la cuenca del río Gobelas, Fadura y Bolue*”. Esta moción ha sido rechazada por 31 votos en contra (Grupo Nacionalistas Vascos y Grupo Socialistas Vascos) y 19 votos a favor (Grupos Bildu y Popular Vizcaíno).

La jornada ha continuado con el último trámite parlamentario que le restaban a los dos **proyectos de norma foral** que vienen a modificar el Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana y el Impuesto de Bienes Inmuebles, cuyos dictámenes se aprobaron el 10 de mayo en la Comisión de Economía y Hacienda. Mientras que el primero ha sido aprobado por unanimidad, el segundo ha sido ratificado gracias a los votos favorables de los apoderados y apoderas de los grupos Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos, y a la abstención del Grupo Bildu y del Grupo Popular Vizcaíno. Todas las enmiendas reservadas y debatidas en el pleno de hoy han sido rechazadas.

La gestión de los residuos urbanos y la decisión de la Diputación Foral de Bizkaia de no prorrogar el Convenio con el Consorcio de Residuos de Gipuzkoa, ha sido el tema que ha centrado la última parte de la sesión. Tras el debate conjunto de tres **proposiciones no de norma** presentadas de forma separada por Nacionalistas Vascos, Popular Vizcaíno y Socialistas Vascos, las Juntas Generales de Bizkaia han apoyado la decisión de la Diputación Foral de Bizkaia de no prorrogar el convenio con Gipuzkoa al aprobar las tres iniciativas parlamentarias con los votos favorables de estos tres grupos. Bildu ha sido el único grupo juntero que ha rechazado la postura de la Diputación al votar en contra de las tres proposiciones.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**B I Z K A I A**

Por último, la Cámara foral ha aprobado una **proposición no de norma** del Grupo Popular que pedía tratar los residuos urbanos, en futuros convenios con otros territorios, “con plena libertad para aplicar el tratamiento y valorización de los RU que mejor convenga a los intereses de Bizkaia”, sin que se admitan “cláusulas restrictivas ni limitativas en cuanto a dicho tipo de tratamiento y valorización”. Esta propuesta ha salido adelante gracias a los votos favorables de Nacionalistas Vascos y Grupo Popular Vizcaíno y a la abstención de Bildu y de los Socialistas Vascos.